

DIRU SARRERAK

Diru-sarrerak sortzeko hainbat modu daude. Hasteko, aktiboen salmenta; Publizitatea egingo dugu diru-sarrerak izateko; posterrak egingo ditugu gure boligrafoak erostera erakartzeko eta ikastetxe desberdinetako paretetan eta ikastolako materiala saltzen den dendetako ateetan jarriko ditugu poster hauek. Sare sozialetatik ere egingo dugu publizitatea. Errestasunak emateagatik komisioa kobratu dezakegu, beranduago ordaindu behar badute erosleak.

Prezioei dagokionez, gure boligrafoek edo produktuek prezio finkoa izango dute eta egia da hasiera batean prezioa ez dela jendeak espero duen bezain merkea izango, izan ere, guk irabaziak behar ditugu eta hasieran gastu handiak izango ditugunez, balantze bat izateko prezioak ezin dira baxuak izan. Enpresa handitzen doan bitartean, gure irabaziekin batera, espero dugu prezioak jeitsi ahal izatea, hori seinale ona izango da eta horrek enpresa ondo doala esan nahi du.